



Esp. kodea: 2024ADIR0001
Titularra: IBAN ARANGUREN ZUBILLAGA

Gaia: ESKATZEA BAIMENA ETA LAGUNTZA
MONDRAITZ MENDI LASTERKETA ANTOLATZEKO

HITZARMENA

HITZARMENA ARRASATEKO UDALA ETA MONDRAITZ ELKARTEAREN ARTEKOA VIII. UDALATX MENDI LASTERKETA DIRUZ LAGUNTZEKO

Arrasaten,

Alde batetik, Eneko Urrizalki Jauregi Mondraitz elkartearen lehendakaria, NA 18.591.687-M duena, adinez nagusia, Mondraitz Kirol elkartearen izenean.

Eta, bestetik, Maider Morras Azpiazu, Arrasateko Udalaren alkate-udalburua, haren izenean diharduena, horretarako behar bezala ahalmendua dago eta.

Bi aldeek hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri.

AZALPENAK

Mondraitz Kirol elkarteak 2024ko urtarrilaren 24an, 2024ko apirilaren 14an ospatuko den VIII. Udalatx Mendi lasterketa antolatzeke laguntza eskaera egin zuen.

Proba honen inguruan zera azpimarratu behar da:

- Udalatx Mendi lasterketaren zortzigarren edizioa dela.
- Gure herrian proba hau ekintza berezien artean egonkortu den ekitaldia dela.
- Kirol ikuskizun bezala Arrasateko herriari eskaintzen dion oihartzuna eta interesa garrantzitsua dela.
- Lasterketa honi esker, Euskal Herritik datorren jende kopurua handia dela eta Arrasateri bere udalerritik kanpo ematen dion zabalkundea eta ospea nabarmentzekoa dela.

KLAUSULAK

Lehena. Hitzarmen honen helburua da Mondraitz elkarteak 2024ko apirilaren 14an egingo den VIII. Udalatx Mendi lasterketarako diru laguntza xedatzea.

Bigarrena. Hitzarmen honen bidez Mondraitz elkarteak antolatuko duen Udalatx Mendi lasterketa lagunduko du diruz Arrasateko Udalak.

Hirugarrena. Arrasateko Udalak 7.000€ko diru laguntza emango dio Mondraitzi "1 1200.481.341.20.01" kontu sailaren kargura.

Laugarrena. Udalak babestutako ekintzen kartel iragarleetan eta, oro har, ekintza horien publizitatean babeslearen izena jarriko du Mondraitzek.

Bosgarrena. Diru laguntzaren %90 ordainduko dio Udalak Mondraitzi, hitzarmen hau sinatu eta berehala. Gainerakoa, urteko memoria eta justifikazio agiriak aurkeztu ondoren.

Kodea	CL24/03659	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1ATXE.B.Us6S			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ATXEB.Us6S			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2024ADIR0001
Titularra: IBAN ARANGUREN ZUBILLAGA

Gaia: ESKATZEA BAIMENA ETA LAGUNTZA
MONDRAITZ MENDI LASTERKETA ANTOLATZEKO

Seigarrena. Hitzarmen honen klausulak ezin izango dira aldatu edo zabaldu, bi aldeak ados jarri gabe.

Zazpigarrena. Hitzarmen honen iraunaldia amaituko da Arrasateko Udalak aurkeztutako zuriketaren ondorengo ebazpena hartzen duenean.

Zortzigarrena. Alderdiek ez badituzte dagozkien betebeharrak betetzen, hitzarmena bertan behera uzteko prozedura hasiko da. Hitzarmena bertan behera utziz gero, hitzarmena bete duen alderdia bere betebeharrak betetzetik salbu geratuko da.

Bederatzigarrena. Aurtengo edizioaren azalpen-memoria aurkeztuko du Mondraitzeko datorren 2024ko maiatzaren 31 baino lehen; eta, horrekin batera, lortu dituen emaitzen balorazioa. Baita ere, aurkeztu beharko ditu:

- Izandako diru sarreraren eta gastuen balantze orokorra.
- Jarduerak sortutako gastuaren frogagiriak, soilik gastu konputagarrien kasuan. Honako hauek frogagiri gisa onartzen dira:
 - ✓ Jarduerari lotutako gastuen jatorrizko fakturak edo horien kopia. Fakturretan, datu hauek agertu beharko dira:
 - Klub, entitate edo elkartearen izena argi eta garbi.
 - Kontratistaren edo hornitzailearen izena.
 - Faktura noizkoa den.
 - Hornidura/zerbitzua sortzen duen jarduera.
 - Dagokion federazioari ordaintzen zaizkion fitxa eta kuotak, baita epaileen gastuak, haren ziurtagiri bidez zuritu ahalko dira.
 - ✓ Honako hauen ordainagiriak, fakturarik sorrarazten ez badute: Arbitrajeen eta epaileen gastuenak, federazio gastuenak, eskudirutan emandako sariak, dieta edo partaidetza kuotengatik talde eta kirolari amateurrei egindako ordainketak. Ordainagiri horiek datu hauek jaso behar dituzte:
 - Kirolarien izenak (izen-abizenak eta NAN) EDO KLUBAREN IZENA.
 - Gastuaren zenbatekoa.
 - Kontzeptuaren deskripzioa.
 - Ordainketa egiten duen entitatearen deskripzioa (diru laguntzaren onuraduna) eta noiz eman den.

Behin entregatua behar den dokumentazioa aztertuta eta onartuta, diru laguntza proposamenaren %10a ordainduko da, hala badagokio.

Kodea	CL24/03659	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1ATXE.B.Us6S			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ATXEB.Us6S			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				




Esp. kodea: 2024ADIR0001
Titularra: IBAN ARANGUREN ZUBILLAGA

Gaia: ESKATZEA BAIMENA ETA LAGUNTZA
MONDRAITZ MENDI LASTERKETA ANTOLATZEKO

Eta horrela jasota geratzeko eta adostasuna agertzeko, hitzarmen hau egin eta hasieran aipatutako toki-egunetan izenpetzen dute.

ARRASATEKO ALKATEA

Sin. Maider Morras Azpiazu



MONDRAITZ ELKARTEKO LEHENDAKARIA

Sin. Eneko Urrizalki Jauregi


2024-03-15

Kodea	CL24/03659	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1ATXE.B.Us6S			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1ATXEB.Us6S			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				

